

Krisia gainditzeko bi proposamen berde kolorezko

Naomi Kleinek “shockezko kapitalismoa” deitu duenaren jokaldi berria bailitzan, herritarrei kostatzen ari zaie 2008ko krisiaren aurrean erreakzionatzea. Adituei ere bai. Oraingoz gehienik hitz egiten da agintariak hartutako neurriez. Baina batzuk hasi dira aurrera begirako bideak proposatzen.

“ZER DIO EZKERRAK KRISIAZ?” galdetu izan dute askok munduko estatu aberatsak, bata bestearen jarraian, hondoa jotako bankuak nazionalizatzen hasi zirenetik. “Non dira ezkerreko intelektualak?” ere irakurri da. Ezer gutxi egin zezakeen ezkerrek, bera ere hondamendi globalak ezustean harrapatu baitu.

Herritar oinezkoena izan da lehenengo erreakzioa. New Yorken eta Londresen ikusi dira protesta egiten, agintariak banku handien laguntzera ziztu bizian joan direlako, zorpean ito-tako familiak bide bazterrean utzita. Diru publikoen erabilera basati horretaz eta krisiaren errudunen zigorrak ezaz kexua azaltzera kaleratu dira. Lehenbiziko haserrealdi horren jarraituentzat jo daitezke azaro honen 15ean G20ko agintarien bilkura dela eta bazter guztietan ikusi diren protestak. Gaztelaniazko “*La crisis que la paguen ellos*” leloak ederto laburbiltzen du sentimendua, baina jazotako lurrikararen aurrean, motz geratzen da.

Dagoeneko inork ez dizu ukatuko 1929koaren neurriko krisian murgilduta gaudela. Zalantzarik zuenari 2008ko Urri Beltzak argitu dizkio betiko. Zer egin, ordea, hemendik aurrera? Agintean daudenak bezala oposizioako indarrak, enpresetako ugazaben liderrak nahiz langileen buruzagi sindikalak, paralisitik atera ezinez ageri dira.

Ezkerretik plazaratzen hasi diren proposamenei jarraipena egitea merezi du. Biren aipamenak egingo ditugu oraingoa, bi pentsamendu korronte garrantzizkoren isla direlakoan.

Alde batetik, txikiagotze edo *décroissance* delakoa aldarrikatzen duten ekonomialari eta bestelako pentsalariak indar berriz ari dira. Horien artekoa da, klasikoa gainera, Joan Martínez Alier, Bartzelonako unibertsitatean teoria ekonomikoan katedradun. *Sin permiso* aldizkari ezkertiar espainolean plazaratu du “*La crisis económica, vista desde la economía ecológica*”.

Martínez Alier da uste duteneta-ko errealtateak ulertzeko paradigma aldatu beharra daukagula. Klasikoak izanik aldi berean oso gutxi aipatzen diren ekonomialarien ildoari jarraitzen zaio. Horien arteko bat Frederick Soddy da, 1926an, 29ko krisitzarra baino lehenago, *Wealth, Virtual Wealth and Debt* (Aberastasuna, aberastasun birtuala eta zorra) liburua idatzi zuena.

Duela 80 urte Soddyk ozen adierazia zuen ekonomia analizatzeko irizpide akademikoak oker planteatuta daudela. Ekonomiak, Soddyren eta bere ondoren ekonomia ekologikoa landu dutenen iritzian, hiru mailatan dago banatuta. Batean daude finantzak. Bigarren mailan aditu gehienek ekonomia erreala deitzen dutena. Bi maila horiek dira analisis-

Irudi honen jatorriak ezin izan dugu aurkitu; blog ugaritan ipini dute, egilerik aipatu gabe. Marrazkian, krisia konpontzeko edo krisitik ateratzeko eskuliburu bera da kea darion usina, suhiltzaile lanetan ari denak exekutibo itxura du eta honek eskuetan daukan tutu malguari tantarik ez dario, ponpierraren harridurarako. 2008an eztanda egin duen krisia bideratze aldera, munduko agintariak orain artean zulorik handienetan adabakiak jostera mugatu dira. Bankuen nazionalizatzea, alegia. Herritarren protestak adabakion kosteari eta jende arruntari bankuen konparazioan egiten zaion injustiziarik daude lotuak. Krisiaren aterabideez eztabaida pixkanaka hasi da pizten. Krisia sekulakoa denez, aldaketari buruzko eztabaidak handia beharko luke.


tan erabili ohi direnak. Baina sakonago, oinarrian, hirugarren maila bat bada: ekonomialari ekologikoei erreale-erreal deitzen dutena, hau da, energia eta lehengaiei dagokiena.

2008ko krisiak agerian utzi ditu, Martínez Alierren ustez, urte luzez aurrerapenaren kontabilitatea oker egin izanaren ondorioak. Energiaren eta lehengaien urritzeak –kontabilitatu ez denak baina ondorioak orain erakutsi dituenak– irteerarik gabeko atakara eraman du kapitalismoatrn oinarri den hazkunde. Krisi hau aukera ona da egitura guztiak berrikusi eta “sozialki jasangarria den txikiagotze ekonomia”ri ekiteko.

Pentsamendu ildo honek, beraz, akats larritzat joko ditu egunotan agintariak krisitik ateratzeko haiztzen dituzten neurri nagusiak, hala nola autopista, tren laster eta bestelako azpiegitura erraldoiak. Zertarako autopista gehiago, petrolioaren garestitzea geldieztina denean? Beste Net Hurbil oso bat eskatzen du Frederick Soddyren edo Nicholas Georgescu-Roegen-en ildoko pentsalariak proposatzen duten gutxiagotzearen deskribapenak. Egingo dugu.

Sozialdemokrazia berdea

Bigarren aukerak *Green New Deal* (Itun Berri Berdea) du izena. Duela 75 urte, 1929ko krisiaren ondoren, Franklin D. Roosevelt presidenteak



AEBetan *New Deal*, itun berria, antolatu zuen ekonomia berpiztu eta gizartea berriro martxan jartzeko. Haren oihartzun izan nahiko luke *Green New Deal* proposamenak, Nazio Batuen Erakundeak martxan jarri duenak. Urrian jakin denez, Alemania eta Norvegiako gobernuek aurreratu dute dirua horretarako.

Idea aitzinatzeke, Britainia Handian sortu da *Green New Deal Group* bat. Finantzeta, energia eta ingurumeneari adituak dira sinatzaileak. Tartean daude Larry Ellion *The Guardian* egunkariaren ekonomiako erredaktoreburua, Colin Hines Greenpeace International-eko buruzagi izana, Tony Juniper eta Charles Secrett Friends of the Earth (Lurraren laguna) erakundeko buruzagi ohiak,

Caroline Lucas Alderdi Berdeko buruzagitzakoa, Ann Pettifor herrialde txiroen zorra barkatzeko Jubilee 2000 programaren buru izana, Andrew Simms New Economics Foundation erakundeko burua...

Green New Deal proposamenaren aldekoek diote bizi duguna krisi hirukoitza dela: kreditua, petrolioaren prezioa eta klima, hirurak daude kinka larrian. Krisi hirukoitzagatik beharrezkoa da: energia berriztagarrietan inbertitzea, milaka lanpostu berde sortzea, finantzen sektorea kontrolatzea, eta ekologisten, industriaren, nekazaritzaren eta sindikatuen arteko elkarlana antolatzea.

“Depresio Handiaren garaietatik izandako krisirik sakonena den honek erreforma benetakoak eskatzen ditu,

eta horietakorik ez dute oraindik aipatu politikariek. Beharrezkoa da finantzak berriro arautzea haiei zergak ezarriz, baina gainera eraldaketazko programa handi bat jarri behar da martxa, erregai fosilak gutxitzeko eta aldi berean kredituaren kolapsoak eragin dituen langabezia eta eskariaren jaitsiera konpontzeko. Gas isurketak ekarriko dituzten politikak eta finantziario egokia behar ditugu, *peak oil* ekarriko duen energia urritzeari aurre egiteko”.

Asmo horien lortzeko neurri batzuk zerrendatu dituzte. Karbono kontsumo urriko energi sistema antolatzea, eraikin bakoitza energi zentral bihurtuz. Erregaien prezioan sartzea ingurumenari egindako kalteen ordaina, klima aldaketaren kontrako neurriak finantziatzeko. Korporazioei zergak ez ordaintzeko dauzkaten bideak mozteko neurriak. Finantz sistemaren gaineko kontrola. Munduko finantz erakundeen ahalmena berrantolatu, bide batez beren sinestagarritasuna lortzeko. Herrialde txiroei lagundu garapena lortzen saia daitezen beroketa globala gehiago okertu gabe. Neurri pila bat.

Oraindik sakonera ikusi ez diogun krisitik ateratzeko bi proposamen dira, beren buruak aurrerazaleztat dauzkaten artean sortuak. Txikiagotzea versus *Green New Deal*. Baina zertan geratuko dira proposamen guztiak, baldin eta negu honean herritarrek haserre edo etsita kaleak sutzen badituzte? ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Herrani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624